



AURRE TITULUA

-ZIOEN AZALPENA-

Hainbat egoera gatazkatsu suertatu izan zaizkigu espazio publikoko terrazak direla- eta. Hori horrela, herritar askoren kexa eta kezkei erreparatuta, prozesu bat abiatzea erabaki genuen. Prozesu partehartzaile bat bideratu zen, zeinetan, 3 erpinei helduta egin genuen lanketa. 3 multzo horiek honako hauek izan ziren: tabernariak, herritarrak/auzokideak eta eragile sozio-kultural-aniztasun arloetakoak...

Ugari ziren herritarrek agertutako kexak; besteak beste, zarata, irisgarritasunik eza, zikintasuna, okupazio handiegia, ekintza kulturalak oztokatzea eta deskantsua kaltetzea. Hortaz, elkarbizitza osasuntsua helburu izanda abian jarri ginen. Batzuek zein besteek, elkarrekiko errespetuan jarri zuten azpimarra; beraz, udalaren asmoa da guztion eskubideak errespetatuko duen ordenantza bat egitea, aisia, mugikortasuna, deskantsua eta lana orekan jarrita.

Ordenantza lantzeko prozesua oso lan konplexua izan da beharrezkoa zelako alderdi bakoitzak duen ikuspegia kontuan hartzea eta, aldi berean, legeak diotenari jarraitzea. Izan ere, oso errealitate desberdinak batzen baitira herritarren artean eta guzti horiek kontuan hartu ditugu; elkarbizitza helburu egin dugu ordenantza hau. Zehapen araubide bat ezartzea ere horren adierazgarri izan da; hain zuzen ere, konpromiso hori eskatu zaiolako udalari prozesu honetan. Beraz, zehapen bidea baliatuko da, beti ere proportzionaltasun irizpidea kontuan izanik, hasieratik guztiok jakin dezagun arau hausteen mailakatzea zein den eta zer dakarren.

-XEDAPEN OROKORRAK-

1.artikulua.- Xedea

Ordenantza honen xedea da ostalaritzako jarduera jabari publikoko espazioetan edo erabilera publikoko espazio pribatuetan gauzatzen denean, erabilera pribatiborako bete behar den araubide juridikoa eta baldintzak arautzea.

2.artikulua.- Aplikazio-eremua.

1. Ordenantza hau aurreko artikuluan jasotako espazioetan aplika daiteke, espazio horien titulartasuna edozein dela ere.
2. Ordenantza honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen da aurreko artikuluan jasotako espazioetako erabilera pribatiboa, non eta ostalaritza-jarduera horiek kirol-klubek, kultura-elkarteek, gazte-elkarteek eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko elkarteek gauzatzen duten.

I. TITULUA

- TERRAZEN ETA BELADOREEN ERREGULAZIOA-

I. KAPITULUA

TERRAZAK INSTALATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

3. artikulua.- Terrazak jarriko diren espazioan, eta bereziki, oinezko eta ibilgailu ugari biltzen diren tokietatik hurbil, pertsonen segurtasun kolektiboa, bide-segurtasuna, irisgarritasun unibertsala eta mugikortasuna bermatu behar dira, bai oinezkoentzat bai eta, oro har, trafikoarentzat edo beste era bateko arriskuren bat eragin dezaketen tokietarako ere.

Terraza eta horri dagozkion elementu guztiak, eraikinaren fatxadaren lerrotik 2 metrora egongo dira, gutxienez.

Terrazako mahaiak zein bestelako elementuak ezartzerakoan bermatuko da beti aniztasun funtzionala dutenek inolako trabarik gabe erabili egin ahal izango dituztela.

4. artikulua.- Arau orokor gisa, ez da baimenduko establezimenduaren kanpoaldean pilotzea altzariak, terrazako elementuak eta edari-kutxak edo -upelak. Era berean, terraza-lizentziarekin zuzenean lotutako elementuek eraikin baten barruan egon beharko dute jasota baimendutako ordutegia amaitzean.

Salbuespen gisa, organo eskudunak terrazaren titularrari baimena eman ahal izango dio lizentzian ezarritako mahai eta aulkiak espazio publikoan pilotzeko. Horiek guztiak establezimenduaren kanpoaldean egon beharko dira, udalak esleitutako lekuan eta kateatuta.

5. artikulua.- Instalazioak izan dezakeen gehieneko luzeraren garapenak, alboetako babesak barne, ez du gaindituko jarduera nagusiaren euskarri den establezimenduko fatxadarena, mugakideek idatziz baimena eman ezean, eta, inola ere, ezin izango dira hamabi (12) metrotik gorakoak izan.

6. artikulua.- Ezin da hozkailurik instalatu, ez produktuak kontserbatu, biltegitatu edo janariak prestatzeko antzeko gailurik, ez eta makina automatikorik, jolas-makinarik, ausazko jokorik, billarrik, futbolarik edo antzeko ezaugarriak dituen beste edozein makinarik ere.

7. artikulua.- Arau orokor gisa, ez da onartuko terrazako espazio edo instalazioetan soinua edo ikus-entzunezkoak erreproduzitzeko edo anplifikatzeko ekipoak instalatzea, **telebistarik**, ez eta zuzeneko emanaldiak egitea ere. Salbuespen gisa, organo eskudunak zuzeneko musika-emanaldiak eta musika-erreproduzitzailak baimendu ahal izango ditu Zapato Azulean eta ordutegia luzatzeko dekretuan jasotako egunetan, gehienez ere, 3 emanaldi urtean lizentziako eta, beti ere, 23:00etara. **Nolanahi ere, hirurehun metroko erradioan dauden ostalaritza-establezimenduei baimen bakarra emango zaie, eta udalerriko zarata mapan ezarri daitezkeen neurri zuzentzaileak egokituko zaizkie.**

8. artikulua.- Eskumena duen organoak barra osagarriak jartzeko baimena eman ahal izango du ostalaritza-establezimenduen kanpoaldean, soilik janaria saltzeko eta, nolanahi ere, herriko jaietan eta Zapato Azulean.

9. artikulua.- Instalazioaren titularrak garbi izan beharko ditu baimendutako okupazioa eragin duen espazioa eta ostalaritzaren eraginpean dauden espazio erantsiak.

10. artikulua.- Nahitaezkoa izango da ikusgai jartzea establezimenduaren kanpoaldean eta ikusteko moduko leku batean bai instalatzeko baimena bai terrazaren xehetasun-planoa.

11. artikulua.- Euskaraz idatziko dira espazio okupatuan jendearen eskura jartzen diren elementu guztiak, hala nola: menuak, prezio-zerrendak, kartelak, eskaintza-oharrak, arbelak eta gisa horretakoak. Beste hizkuntza batzuetan ere idatzi ahal izango dira, baina hala egitekotan, euskarari emango zaio lehentasuna (ordenari, tamainari eta abarri dagokienez).

Euskaraz emateko laguntza behar izatekotan, udal euskara sailera jo ahal da, behar den laguntza eske, dela itzulpena egiteko edo zuzentasuna bermatzeko dela zalantzak argitzeko.

12. artikulua.- Instalazioaren titularrak legezkiokkeen tasak eta gainerako ordainarazpenak ordainduko dizkio udalari; Zerga Ordenantzek ezarriko dute horien zenbatekoa eta ordaintzeko modua. Era berean, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legearen arabera, establezimenduaren titularrak eduki behar dituen erantzukizun zibileko aseguru-polizek behar besteko estaldura izan behar dute, terrazaren funtzionamendutik erator daitezkeen izaera bereko arriskuak barne hartzeko.

13. artikulua.- Lizentzien titularrek nahitaez kendu beharko dituzte terrazaren osagai guztiak interes orokorreko egintzak edo ekintzak burutu ahal izateko, organo eskudunaren aginduz edo premia larriren bat gertatuko balitz, udaltzainek hala eskatuta; behar-beharrezkoa den gutxieneko denboran. Etete horrek ez dio inolako kalte-ordainik sortuko terrazaren titularrari.

II. KAPITULUA

AZALERA OKUPAGARRIA MUGATZEA

14. artikulua.- Emandako lizentziak honako hauek ezarriko ditu: azalera, terrazaren eta mahaitxoek kokapen zehatza, baita baimendutako mahaien eta aulkien kopurua ere.

15. artikulua.- Udal-langileek jabari publikoko espazioan edo erabilera publikoko espazio pribatuan markatuko dituzte lizentziak ezarritako eremuen mugak, eta terrazako elementuek ezin izango dute, inola ere, azalera hori gainditu.

III. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDU-ORDUTEGIA

16. artikulua.- Baimendutako ordutegiak:

Xedapen orokorrak:

Lehena:

Terrazaren elementu higigarriak ezin izango dira jabari publiko edo pribatuan jarri baimendutako jarduera hasteko ordura arte.

Bigarrena:

- a) Ordutegia 01:00ak arte luzatu ahal izango da, horretarako dekretuan jasotako egunetan.
- b) Nolanahi ere, I. taldeko establezimenduei lotutako terrazen funtzionamendu-ordutegia jarduera nagusiari dagokion itxierara mugatuko da.

- c) Baimendutako ordutegia gairitu ondoren ezin izango da ostalaritzako produkturik zerbitzatu eta kontsumitu terrazetan. Era berean, 20 minuturen buruan terrazako elementu guztiak gordeta egon beharko dira.

Zamalanetarako egokitutako bide-zatietan dauden terrazak.

EKAINAREN 15ETIK IRAILAREN 15ERA BITARTEKO ALDIA

- Astelehenetik ostegunera: 12:00etik 23:30era.
- Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan: 12:00etik 00:00etara.
- Igandeetan eta jai egunetan: 08:00etatik 22:00etara.

IRAILAREN 16tik EKAINAREN 14ra arteko aldia

- Astelehenetik ostegunera: 12:00etik 22:00etara.
- Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan: 12:00etik 23:00etara.
- Igandeetan eta jai egunetan: 08:00etatik 22:00etara.

Erabilera publikoko jabari publikoko edo pribatuko gainerako lekuetan dauden terrazak.

EKAINAREN 15ETIK IRAILAREN 15ERA BITARTEKO ALDIA

- Astelehenetik ostegunera, igandeetan eta jai egunetan: 08:00etatik 23:30era.
- Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan: 08:00etatik 00:00etara.

IRAILAREN 16tik EKAINAREN 14ra arteko aldia

- Astelehenetik ostegunera: 08:00etatik 22:30era.
- Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan: 08:00etatik 23:30era.
- Igandeetan eta jai egunetan: 08:00etatik 22:30era.

IV. KAPITULUA
BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

17. artikulua.- Muga orokorrak

1. Arau orokor gisa, ez da terrazak jartzeko baimenik emango espazio hauetan: espaloietan, oinezkoen pasabideen aurrean, monumentu edo estatuen ondoan, larrialdi-irteeren aurrean, etxebizitzetako eta merkataritza-lokaletako irteeren aurrean, konkurrentzia publikoko lokaletako larrialdi-irteeren aurrean, mugikortasun murriztua duten pertsonen eta oinezkoen mugikortasuna oztopatuko duten tokietan.

Salbuespen gisa, gune egokirik ezean eta, beti ere, oinezkoentzako ibilbidea bermatzen bada, espaloietan terraza jartzeko baimena onartu ahalko du organoak eskudunak. Kasu horietan, beharrezkoa bada, aniztasun funtzionala dutenen irisgarritasuna bermatzeko lizentziaren jabeek espaloira igotzeko arranja ezarri behako dute.

2. Ez da lizentzia berririk emango egitura egonkorrak jartzeko.
3. Atezaindegi edo "portería" erako egiturei baimena emateko beharrezkoa izango da hirigintzako teknikariaren oniritzia duen txostena. Txostena egiteko kontuan hartuko dira terraza mugakideekiko espazioa eta bata nahiz bestearen arteko elkarbizitza-arrazoiak.
4. Eskaera berriak zein berritzeko eskabideak egiterakoan adierazi beharko dira jarriko diren altzarien ezaugarriak, eta zehaztu, baita ere altzarietako euskarrien gomazko elementuak edo arrastatze-zarata saihesten dutenen elementuak. Azken horrek udal zerbitzu teknikoaren oniritzia jaso beharko du.
5. Ikuspegiari trabarik ez egiteak izango du lehentasuna herriaren berezko pertzepzioa oztopatu ez dadin, hau da, iragazkortasunari erreparatuko zaio lehenengo, batez ere, herriko paisaia turistikoa eta historikoa baldin bada.

18. artikulua.- Baimendutako elementu higigarriak

Gaitzen duen tituluak honako ezaugarri hauek dituzten mahaiak, aulkiak, mahaitxoak eta eguzkitakoak jartzeko baimena ematen du:

- Mahaiak eta aulkiak, ahal dela, metalezkoak eta zilar kolorekoak.
- Mahaitxoak.
- Eguzkitakoak, beltzak edo gris perla kolorekoak izango dira. (beixak, zuri, beltz...)
- Ate motakoak. Atari bakarreko egitura bat da, atezaindegi edo «portería» erakoa, egitura horretatik zintzilik jartzen da eguzki-oihal bana bakoitza alde batera, dagokion espazioa estaltzeko.

19. artikulua.- Alboetako babesak

1. Horien helburua izango da instalazioak okupatzen duen eremua mugatzea. Aniztasun funtzionala duten pertsonen mugikortasuna eta irisgarritasuna bermatuko dute elementuek eta itsuek erraz identifikatzeko modukoak izango dira. Horien egokitasuna udal-zerbitzu teknikoaren oniritziaren mende geratuko da.
2. Alboko babesak aluminiozkoak edo altzairuzkoak izango dira, forja motako akabera metaliko naturala dutela, edo, oro har, hiri-espazioko gainerako altzarietakoak bezalakoa. Tonu uniformea izango dute zona bakoitzean, eta ingurunea kontuan hartuta zehaztuko da. Akabera herdoilgaitzik ez da baimenduko.

3. Mugikorrek eta erraz desmuntatzeko modukoak izan behar dute, eta terrazaren funtzionamendu-ordutegitik kanpo kendu behar dira. Gomazko elementu gurpildunak izango dituzte, kanpoan arrastatzeagatiko zaratak saihesteko.
4. Diseinuan, bisten iragazkortasuna lehenetsiko da, herriaren pertzepzioari oztoporik jarri gabe. **2,00-2,50** m arteko altuerakoak izango dira.
5. Ezin izango dira lurlean ainguratu. Mugatutako espazioaren barrualdean jarritako kontrapisu bat erabiliko da eusteko. Kontrapisu horrek pisu nahikoa izango du elementuaren egonkortasuna bermatzeko, terrazaren azalera-muga oztopatu edo gainditu ez dezan.

V. KAPITULUA

BAIMENA EMATEKO BALDINTZA FORMALAK: ESKAERA ETA IZAPIDETZEA

20. artikulua.- Udal-lizentzia

1. Terrazak eta horien elementu osagarriak instalatzeko, lehengo eta behin, udalaren baimena beharko da.
2. Ondoren horietarako, interesdunak Erregistro Orokorrean horretarako formalizatutako eskaera-orria aurkeztu beharko du eta bertan identifikatuko du interesduna eta ostalaritza jarduera; pertsona juridikoen kasuan, ostera, ordezkariaren akreditazioa aurkeztuko du. Era berean, adierazi beharko du udako denboraldirako soilik eskatuko badu edo asmoa duen denboraldira kanpoko beste hilabetetan ere jartzeko; halakorik nahi izanez gero, hilabete zehatzak zehaztuko ditu.
3. Hurrengo artikuluan adierazitako agiriak ere aurkeztu beharko ditu.
4. Establezimenduak 17/2019 Dekretuaren IV. ERANSKINEKO IV. Eranskinean definitutako errotulua edo plaka izan beharko du (17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena).

21.artikulua.- Aurreko artikuluan aipatutako eskabidearekin batera, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Instalazioak okupatu behar duen azalera eta fatxadaren luzera, mahaiak, aulkiak, alboetako babesak eta eguzkitakoak nola jarriko diren (proiektzio horizontala eginda) eta azken horietako ezaugarriak.
2. Instalazioaren erantzukizun zibileko aseguru-poliza aurkeztu beharko da Ordenantza honen 12. artikuluan jasota bezala.

22. artikulua.- Ebazpena

Eskaera Ordenantza honetan eskatutako baldintzetan egin ondoren eta dagozkion txosten tekniko eta juridikoak egin ondoren, Alkatetzak, edo eskumena eskuordetzen dion udal-organoak, ebatziko du bi hilabeteko epean.

Bi Hilabeteko epean esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da.

23. artikulua.- Lizentziaren baldintzak

1. Lizentziak emateak ez dio sekula jabetza-eskubideari eragingo ez eta hirugarrenei kalterik egin. Lizentzia horiek ezin izango dira baliatu onuradunak bere jarduerak gauzatzean hartzen duen erantzukizun zibila edo penala baztertu edo gutxitzeko, eta ez dute titularra salbuesten, hala badagokio, beste baimen batzuk lortzeko betebeharretik.
2. Lizentziaren agirian zehaztuko dira instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak, okupatu beharreko azalera, emakidaren indarraldia eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako berezitasunak.
3. Lizentziaren titularrak konpondu beharko ditu bide publikoan instalazioaren ondorioz sortzen diren kalte guztiak.

24. artikulua.- Indarraldia

1. Erabilera publikoko bideetan (kale, plaza, espazio libre, pasabide eta abarretan) terrazak eta mahaitxoak jartzeko emandako lizentziek 4 urteko iraupena izango dute. Berritu ahal izango dira, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, beste araudi batean aurreikusitako mugen kalterik gabe. Interesdunak aurkeztu beharko du, urtero, ordenantza honen 12. artikuluan jasotako aseguru-poliza.
2. Indarraldia amaitutakoan, lizentziaren titularrak edo, hala badagokio, dagokion establezimendukoak instalazio osoa erretiratu eta bide publikoa lehengo egoerara itzuli beharko du, salbu eta lizentzia berritzea izapidetzen bada.
3. Lizentzia baten onuradunek aldaketak egin nahi badituzte eta hasierako baimenaren edozein alderdi aldatu (irekitzeko lizentziaren titularra aldatzea eta/edo jardueran aritzeko aurretiazko komunikazioa edo gaikuntza-titulua, okupazio-azalera, altzariak, kokapena, eta abar), beste lizentzia-eskaera bat aurkeztu beharko dute, eta, hala badagokio, lizentziaren eskualdatzearen berri eman beharko dute.

4. Lizentzia eman ondoren, hura termino eta baldintza berberetan berritu nahi den bakoitzean, interesdunak beste eskabide bat aurkeztu beharko du, 18. artikulua arabera.

II. TITULUA **ZEHAPEN-ARAU BIDEA**

I. KAPITULUA **SUBJEKTU ERANTZULEAK, ORGANO ESKUDUNAK ETA ARAU-HAUSTEEI ETA ZEHAPENEN** **APLIKAZIOARI BURUZKO ARAU OROKORRAK**

25. artikulua.- Erantzuleak.

Egindako arau-hausteen erantzukizuna terrazako lizentzia duen titularrena izango da zuzenean.

26. artikulua.- Organo eskudunak.

Ordenantza honen arau-haustek zehatzeko ahalmena Ondarroako Udaleko alkateari dagokio edo eskumena eskuordetzen dion udal-organoari; betiere, administrazio publikoen zehatzeko ahalara arautzen duten printzipioei jarraituz, indarrean dagoen araudian jasota bezala.

27. artikulua.- Zehapen-prozeduraren instrukzio-egilea zehatzuko da Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean ezarritakoaren arabera.

28. artikulua.- Zehapenaren mailaketa.

1. Ordenantza honetan tipifikatutako arau-haustek egiteagatik zehapenak ezartzerakoan proportzionaltasun-printzipioa beteko da.
2. Arau-hausteetarako aurreikusitako mugen barruan, isunak hedadura bereko hiru tarte izango dituzte: gutxieneko, erdiko eta gehieneko maila dagozkienak. Arau-hauste bat eginez gero, dagokion isuna gutxienekoa izango da.

Zehapena mailakatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Erruduntasun-maila edo intenzionalitatea.
- b) Arau-hausteararen jokabide jarraia edo errepikakorra.
- c) Eragindako kalteen izaera.
- d) Urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin izanagatik berrerortzea, administrazio-bidean ebazpen irmo baten bidez hala deklaratu denean.

29. artikulua. Arau-hausteen konkurtsoa.

1. Bi arau-hauste edo gehiagoren erantzuleari arau-hauste bakoitzari dagozkion zehapen guztiak ezarriko zaizkio.
2. Baldin eta egitate bakar batetik badatoz arau-hauste bat baino gehiago horiek, edo egin baldin badira alde zuzenetik pentsatutako plan bat gauzatzeko, edo aukera bera aprobetxatuz, edo arau-hausteetako bat beharrezko bitartekoa izan bada beste bat egiteko, aurreko zenbakian ezarritako araua aplikatuko da arau-hauste bakoitzerako ezarritako zehapenak baino astunagoak ez direnak ezarri; eta azken zehapenak ezin izango du gainditu egindako arau-hausterik astunenarentzako ezarritakoa.

30. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.

Lege honetan tipifikatutako arau-hauste administratiboak preskribatuko dira arau-hauste arinak, astunak edo oso astunak egin eta sei hilabetera, bi urtera edo hiru urtera, hurrenez hurren.

1. Arau-hausteen preskripzio-epea arau-haustea egin eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Modu jarraituan egindako arau-hausteen kasuan, epe hori arau-haustearen azken egitatea egin zen egunetik edo legez kanpoko egoera ezabatu zenetik hasiko da zenbatzen. Arau-hauste iraunkorren kasuan, epea jokabide arau-haustea amaitu zenetik hasiko da zenbatzen.
2. Eten egingo da arau-haustearen preskripzioa baldin eta administrazio-prozedura zehatzailea hasten bada, ustezko erantzulea horren jakitun dela. Eta, ostera, ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik prozedura geldirik egon bada hilabetez, berriro hasiko da preskripzioa, epe osorako, hilabete hori betetzen den egunaren biharamunetik; edo, bestela, prozedura erantzukizun-adierazpenik ez dagoela amaitu bada, amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Baldin eta, prozeduraren helburua lortzera bideratzearen eta helburu horrekiko arrazoizko proportzioan, jarduketaren bat egiten bada, ez dago prozedura geldiarazitaz jotzerik, nahiz eta jarduketa hori prozedura-arauan berariaz aurreikusita ez egon, betiere organo eskudunak erabaki badu eta behar bezala dokumentatuta badago.
3. Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezartzen duen ebazpena administrazio-bidean irimo bihurtzen den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen. Baldin eta zehapena ezartzen duen ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri eta presuntziozko ezespena eman bada, zehapenen preskripzio-epea hasiko da kontatzen errekurtsio hori ebazteko legez aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.
4. Zehapenen preskripzioa eten egingo da, baldin eta betearazpen-prozedura hasten bada, zehatutako pertsona horren jakitun dela. Eta berriro ekingo zaio preskripzioari, epe osorako, zehatutako pertsonari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik prozedura hilabetez geldiarazi bada, hilabete hori betetzen den egunaren biharamunetik. Baldin eta, prozeduraren helburua lortzera bideratzearen eta helburu horrekiko arrazoizko

proportzioan, jarduketaren bat egiten bada, ez dago prozedura geldiarazitzat jotzerik, nahiz eta jarduketa hori prozedura-arauan berariaz aurreikusita ez egon, betiere organo eskudunak erabaki badu eta behar bezala dokumentatuta badago. Zehapenaren preskripzioa eten egingo da, halaber, haren betearaztea epai bidez eteten denean; hartara, berriro hasiko da zenbatzen dagokion epe osoa etenaldi judiziala amaitu eta biharamunetik aurrera.

I. KAPITULUA **ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

31. artikulua. Zehapenak.

1. Arau-hauste oso astunak 2001 eta 3000 euro bitarteko isunarekin zehatuko dira; astunak, 1001 eta 2000 euro bitarteko isunarekin, eta arinak, ohartarazpenarekin edo 1000 euro arteko isunarekin. 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, arau-hauste astun eta oso astunengatik aurreikusitako isunen gehieneko, erdiko eta gutxieneko mailai dagozkien tarteak honako hauek izango dira:

- a. Arau-hauste oso astunen kasuan, gutxieneko mailak 2001 eta 2333 euro bitarteko isuna hartuko du; erdiko mailak, aldiz, 2334 eta 2666 euro artekoa, eta gehieneko mailak, azkenik, 2667 eta 3000 euro artekoa.
- b. Arau-hauste astunen kasuan, gutxieneko mailak 1001etik 1333ra bitarteko isuna hartuko du; erdiko mailak, aldiz, 1334 eurotik 1666 eurora bitartekoa, eta gehieneko mailak, azkenik, 1667 eurotik 2000 eurora bitartekoa.
- c. Arau-hauste arinetarako, gutxieneko graduan, ohartarazpena edo 333 eurorainoko isuna egongo da; erdiko mailan, aldiz, 334 eurotik 666 eurora, eta gehieneko graduan, azkenik, 667 eurotik 1000 eurora artekoa.

2. Isunak honako zehapen osagarri hau ekar dezake berekin:

Lizentzia eta/edo baimena aldi baterako etetea: sei hilabete eta egun batetik bi urtera arte, arau-hauste oso astunengatik, eta sei hilabetera arte, arau-hauste astunengatik. Berrerortzea gertatuz gero, berriz, zehapena bi urte eta egun batekoa izan daiteke; gehienez, sei urtekoa arau-hauste oso astunengatik, eta bi urtekoa arau-hauste astunengatik.

Nolanahi ere, zehapen osagarri bat ezartzeak berak dakar lizentziaren titularrak lizentzian baimendutako egitura guztiak kendu beharra. Terrazako elementuak kentzeko errekerimendua betetzen ez bada, administrazioak, hilabetero, hertsapen-isunak ezarriko ditu, 600na eurokoa; hamar isun arte ezar daitezke.

32. artikulua. Zehapen-prozedura

Zehatzeko ahala Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legeak arautzen du.

33. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

Lege honetan tipifikatutako arau-hauzteak oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke.

1. Arau-hauste oso astunak:

- a. Urtebetean hiru hutsegite astun egitea.
- b. Terrazak edo ordenantza honetan araututako beste elementu batzuk instalatzea baimenik gabe.
- c. Organo eskudunak edo Udaltzaingoak terrazaren baimenari atxikitako instalazioa kentzeko egindako errekerimendua ez betetzea.
- d. Ordenantza honetan ezarritako baldintzak behin eta berriz eta modu larrian ez betetzeagatik, instalazioaren funtzionamenduaren ondorioz bizilagunei edo oinezkoei eragozpen larriak eragitea.
- e. Berariaz baimendu gabeko ikuskizunak edo emanaldiak egitea.
- f. Ikuskatze-lana ukatzea edo oztopatzea.
- g. Hasteko edo ixteko ordutegia ez betetzea ordubete baino gehiagoko aldearengatik.

2. Arau-hauste astunak dira:

- a. Urtebetean hiru arau-hauste arin egitea.
- b. Baimenduta ordutegia ez betetzea.
- c. Lizentzian aurreikusi ez diren hiri-altzarien elementuak edo baimendutakoak baino gehiago instalatzea.
- d. Baimendutako azalera baino azalera handiagoa okupatzea edo mugaketaren beste baldintza batzuk ez betetzea.
- e. Nahitaezko aseguruak ez izatea.
- f. Instalazioaren funtzionamenduaren ondorioz bizilagunei edo oinezkoei egiaztatutako eragozpenak sortzea.
- g. Musika-tresnak edo -ekipoak edo baimenik gabeko beste instalazio batzuk instalatzea.
- h. Baimendutako elementuak egunero kentzeko betebeharra ez betetzea.
- i. Terrazako elementu higigarriak herri-jabariko bide edo espazio publiko edo pribatuan pilatzea horretarako baimenik ez duen establezimenduak.
- j. Hartarako baimena izanda, bide publikoan aulkiak eta mahaiak kateatu gabe pilatzea, ezarritako lekua errespetatu gabe edo baimendutako kopurua gaindituz.

- k. Bide publikoan euskara alde batera utzita edo euskara lehenetsi gabe idatzitako publizitate- edo informazio-errekلامoak jartzea.

3. Arau-hauste arinak dira:

- a. Instalaziorako baimena eta terrazaren xehetasun-planoa agerian ez jartzea.
- b. Instalazioa edo ingurua ez apaintzea edo ez garbitzea.
- c. Hasteko edo ixteko ordutegia ez betetzea ordu erdi baino gutxiagoan.
- d. Produktuak, ontziak edo hondakinak terraza-gunean edo bide publikoan okupatutako beste edozein espaziotan biltegitratzea edo pilatzea.
- e. Terrazak hartzen duen bide publikoaren edo espaloiairen zatia garbi ez edukitzea.
- f. Terrazako elementu guztiak garbi eta egoera onean ez kontserbatzea.
- g. Ordenantza honetan jasotako beste edozein betebeharrak ez betetzea, arau-hauste astuna edo oso astuna ez bada.

Xedapen gehigarri bakarra

Terraza gunean gerta daitezkeen eraso matxisten aurrean esku-hartzea eta/edo dagokion protokoloa aktibatzearen erantzukizuna lizentziaren titularrena izango da.

Lehenengo xedapen iragankorra.

Aurreko araudiaren arabera egitura egonkorrak jartzeko emandako lizentziek baliozkoak izaten jarraituko dute, ezarri ziren baldintza eta **betebeharrak** berberetan. Horretarako, ordenantza hau indarrean sartu eta hilabeteko epean, egitura egonkorren titularrek lizentziaren tasarekin batera, 300 euroko fidantza ordaindu beharko dute. Hilabeteko epea amaitu eta oraindik fidantza jarri gabe badago, baimena iraungi egingo da eta, beraz, interesdunak, ordenantza honetara egokitzen den beste lizentzia bat eskatu beharko du terraza jartzeko. Interesdunak fidantza itzultzeko eskatu eta behin instalazio finkoko elementua kendu dela eta espazio publikoa lehen zegoen bezala gelditu dela egiaztatu ondoren egingo da itzulketa.

Bigarren xedapen iragankorra.

Lizentzia aldi baterako urtebetez baino gehiagoz eteten bada, egitura egonkorrak berrezartzeko baimena galduko dute aurreko araudiaren arabera horretarako baimena zuten establezimenduek.

Hirugarren xedapen iragankorra.

Gaur egun terrazak eta gainerako elementuak dituzten jarduerak, bi hilabeteko epean, ordenantza honi egokitzen den lizentzia eskaera egin beharko dute. Epe hori gaindituta eskaera egin barik, gaur egun ezarrita dauden terrazak eta elementu guztiak legez kanpokotzat hartuko dira.

Laugarren xedapen iragankorra.

Organo eskudunak ofizioz hasiko du I., II., III. eta IV. taldeetako oñalaritza-lokalen ordutegiak luzatzeko prozedura. Urtero, azaroan, udalak hamar eguneko epea irekiko du interesdunen

proposamenak biltzeko. Behin proposamenak jasota, udalak hilabeteko epean hurrengo urteko ordutegia ebatziko du eta bertan jasoko dira zer egunetan emango diren ordutegi luzatuak. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indargabetuta geratzen dira Ordenantza honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheagoko arau guztiak. Zehazki, ordenantza honetan araututakoaren inguruan indarrean egon diren Ondarroako ordenantzak.

Azken xedapenetako lehena

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta 15 egun baliodunera jarriko da indarrean.

Azken xedapenetako bigarrena

Alkatetzari berariazko baimena ematen zaio ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, administrazio-prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legerian jasotako printzipioen arabera.